

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4115

IRAGARKIA, 2020ko irailaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita lurpean sartuko dela Puentelarrá-Jundiz I-II aireko eta goi-tentsioko 30 kV-ko linea elektrikoa 1228. eta 1230. euskarrien artean eta ordezkaturako dela eta Zuazo Kuartango TZ (170056510) Kuartangoko udalerrian (Araba).

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) ezarritakoaren ondorioetarako, testu beraren azken xedapenetatik lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehatza eta jarduketak hau:

- Eskatzailea: i-DE Redes Electricas Inteligentes SAU (Urdaitza kalea 2).
- Eskara: Onura publikorako dela deklaratzeko.
- Xedea: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202000035.

Lurperatzea Puentelarrá-Jundiz I-II aireko eta goi-tentsioko 30 kV-ko linea elektrikoa 1228. eta 1230. euskarrien artean, eta ordezkaturako Zuazo Kuartango TZ (170056510).

- Linearen ibilbidea: Kuartango udalerria (Araba).
- Proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.
- Aurrekontua: 136.046,73 euro.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau, eta batez ere proiektuek eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainerako titularrak jakitun egon daitezzen (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran dago jasota), hain justu ere, proiektua aztertzeko aukera izan dezaten konomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako Lurralde Bulegoan (Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea 2), eraginpeko udaletxean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuei buruzko informazioaren apartatua):

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>

Horretaz gain, aukera izan dezaten aipaturako zentroetan egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkezteko, hoguei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a.

Arabako lurralde-ordezkarria,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

2020ko urriaren 7a, asteazkena

ERANSKINA

ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

Lurperatzea Puentelarrá-Jundiz I-II aireko eta goi-tentsioko 30 kV-ko linea elektrikoa 1228. eta 1230. euskarrien artean, eta ordezkatzeara Zuazo Kuartango TZ (170056510), Kuartangoko udalerrian (Araba).

Udalerria	Zk.	Jabearen datuak			Katastro-datuak			Afezioak							
		Jabea	Helbidea	Herria	Poligonoa	Lurzaita	Laborea	Euskarri zk.	Okupazio iraunkorra (m ²)	Kanalizazioar en luzera (m)	Lurpeko pasabidearen azalera (m ²)	Linearen luzera (m)	Aireko zortasun azalera (m ²)	TZ okupazioa (m ²)	Aldi baterako okupazioa (m ²)
Kuartango	1	Zuhazu Kuartango Administrazio Batzordea Jokano Administrazio Batzordea Urbina Administrazio Batzordea Uribari Administrazio Batzordea		01430 Zuhazu-Kuartango	3	1004	Bakarra larrea	-	0,00	61,38	24,55	-	-	-	420,98
Kuartango	2	Zuhazu Kuartango Administrazio Batzordea		01430 Zuhazu-Kuartango	3	1007	Bakarra larrea	-	0,00	9,46	3,78	-	-	41,44	75,50
Kuartango	6	Luis Alberto Sagredo Ruiz de Infante Roberto Sagredo Ruiz de Infante Julio Sagredo Ruiz de Infante M.Luisa Sagredo Ruiz de Infante	Errepide nagusia 27, behe, ezk. Errepide nagusia 29 behe, esk. Errepide nagusia 27, behe, ezk. Errepide nagusia 29 behe, esk.	01139 Ametzaga Zulia	1	14	Orubea / Lurzaita	-	0,00	0,00	0,00	42,00	250,00	-	100,00